



HUGO SCHUCHARDT

Gerhard Bähr

HUGO SCHUCHARDT
ZANA

Neketako : : : :

Ama-Birjiñaren :

Irarkolan Iruña'n



Napafoko «Euskeraren Adiskideak» pozaren-pozez eskeintzen dizugu Schuchardt izkunzlari bikaña zanaren berri-eskute au.

Ezta guk asmatua. Gerhard Bähr, Schuchardt zanaren Alemaniko ikasle jakintsu ta izkunzlari argia dan jaunak, berak euskeraz egiñik biall digu. Gure esker onik biziena egileari.

Artu ta ongi ikusi.





Hugo Schuchardt

«Permitid que un alemán exponga en modestas frases cómo el mundo científico de Alemania ha tomado interés por el pueblo vasco, por su idioma y por las manifestaciones de su vida.»

H. Urtel. III Congreso de Estudios Vascos



rain urte t'erdi
Schuchardt ja-
kintsua (*Xujart*
bezela esaten
da bere izena)
il zan 86 urtê-
kin, Austriako
txoko polit pa-
ketsu batean.

Bere bizitza luze, aberats ta zorionekoan
nolako lanak egin zituen, zenbat eginke-

tetan beti arduratsu ta langile sartu zan;
ta noraiñoko omen andia beretzat irabazi
zuen, itz gutxitan ez ezik, izketa luzeago
batean ere aditzen ematea egiteko izan-
go litzake. Iñoiz bizi izan diran izkun-
tzalari,

**Izkuntzen jakile aundie-
netako bat izan dala : :**

ukatu ezin ditekena da beintzat. Ofi ez
nagokio, baiño oraingoan. Bada Xujartek
zekizkin izkuntzen artean jeuskera bai
ongi zakiela! Ta bera euskalari ta euskal-
zale jatoría zalako, *euskaldun guztien es-
ker ona merezi du betiko*. Gutxi dira,
atzeñian, izkuntza zar oni dagozkionak,
ta gutxi orien artean Xujart euskarara ja-
ria zegoan bezin jafiak. Nagusi zan ta
bikaiñena, gaiñera. Eginkizun gogor ofi
ardura ematen nola asi ta ekin zuen bere
idazki batean zearo esan digu. Mutil kos-
koña baizik etzala bere jayoteñian, Ale-
maniako eñi txiki batean, jaun bat bizi
omen zan, karlisten lenengo gudan (ge-

fan) kapitan izan ta gero Españatik iges
egin bear izan zuen bat. Mutilak, ura sa-
fitan kalean bilatzen zuelako, itzegiten
zion, karlisten beñiak eskatuaz,

**ta onela piztu zitzayon eus-
kaldunenganako naya**

ta poliki-poliki maitetasuna sortu. Ain zu-
zen ere, garai artan liburutegi batean
euskerazko liburu bat—aritzeko gauza—
arkitu zuen ta aitari erosi zezayola eska-
tu zion. Aitak ordea, txorakeria zalakoan
ta semeak bere burua olako uskerietan
geyegi sartzen zuelako ustean, ez erosi ta
min andia eman zion semeari. Urte asko-
zaz gero, aspaldian gizon dutakoan, beñiz
ekin zion euskera ikasteari, baiño liburu-
etan irakurtzea aski ez dala bazekien.
Euskaleñian bertan egon, izketa ere ikasi,
batean mendiko artzayekin jolasaldi bat
egin, naiz baseñitakekin izketan jardun,
bestean beñiz arantzalên lanketa latzari
begiratu, naiz perietan ibili ta bertsolari
aditu, orixe zan egin nai zuena, izkuntza

zearo ezagutzeko, bere itufi garbi nastu-
gabekotik nai aiña edateko.

**Berogei urtekoa zan, ia,
Euskalefira jo zuenean.**

Bayonan bilatu zuen lenengo neskame
euskaldunak, Euskalefian zer egin nai
zuen galdetu zionean, berak: «*euskera
ongi ikasi*» ta arek beñiz «olako asmo go-
goferako zârtxoa zaitugu» erantzun zion
iripañez. Gogoña bai, baiño bere burua
gogoñago ta adimena zofotza! Udaldi sa-
mur bat igaró zuen Prantziako Euskale-
fian, Saran, an Laburdiko euskerarik go-
xoena, eztienea mintzatzen dalakoz. Jola-
saldi luzeak izaten zituen Etxebeñi zeri-
tzayon zapatari prestu batekin ta iru ila-
beteren buruan nai beste ta âl aiña bera-
renganatu zuala esan zezakean.

**Euskaldun askoren esaeran «añas
ederki» zekien mintzatzen**

ta gero ere, Euskalefira itzuli ez afen,
etzitzayon âztu. Jakite ori etzan baiño ge-

rokoan utsa ta alpeña izan beretzat, euskera aztertzen, argitzen ta adierazten lagundu zion bada. Euskera Espaiñako izkuntzarik zařena omen da ta, jařitzeko gauza! bi mila urte edo geyagotan fenizio, eřomar, espaiñar, frantzear ta Jainkoak daki zenbat beste eřik, alde guztietatik erabat, naiz bata bestearen ondoan, gogor ta zorotz eraso badiote ere, badiarau gaur arte, ta gerokoan iraungo du, Jainkoak nai badu.

Orain bi mila urte Euskalerian ta inguruetako alderdietan euskera egiten zala

Xujartek azaldu du, argi ta garbi, ta bat ere ezpairik gabe egiztatu. Baiño atzerago ere joan nai zuen ta euskaldunen jařtořia, beren sorlekua, āl zuen eran, ezagutu-erazi nai izan zuen, ia beste iřongo ta iřoizko eřiekin naiz Afrikan, naiz Europan edo Asian zer ikusirik ote duten edo zuten aurkitzeko gogoaz. Gai ortan, egia osorik atera ezpadu ere—ta iřoiz aterako

ote da? ez dirudi—befi guziz ařimeneko-
ak, beste iñork asmatu ezin ditzakenak
azaldu ditu, ikasiaren ikasiaz. Ala ere ez
dio Xujartek bere indafa euskerari soilik
eman. Ola izatekotan; geyago atera zeza-
kean gai ořezaz bere bizitza luzean. Bai-
ño bere adimen zofotzaren ta buru argi-
tsuaren ikas-naiya Europako izkuntza ge-
yenak ta gaiñerako asko ezagutzeraño-
koa zan. Beraz laurogeigarren jayotzegu-
na bete zuenean—orain sei urte—zen-
batu ezin aiña jakintsuk ta izkuntza lagu-
narte askok zorian-aguřa agertu zioten eta
zenbat beraz eta bere eginketaz oroitu
Alemanian ez ezik, munduko eřialderik
geyenetan ere!

Eta zer zan bere zeregiñik naigariena,
bere lanik miñena garai artan ere? *euske-
ra!* Alako batean adiskide bati auxe ida-
tzi zion:

«Orain ere, ia iltzeko zorian na-
goen onek, euskerari ekitea nere
pozik atsegiñena dala derizkiot.»

Gernikako Batzařera etortzeko deitu

zutenean, makalik egonez ta bidea luzea zalako ezin etofri zan. Baiño eraldi artarako bidaldu zituen berso bero Euskaldunen goragañienak, orduen berak egiñik. Ayenganako bere maitasuna noraiñokoa zan ederki erakutsi du orietan: *Euskaldunak, dio, antxinakoak zerate ta zârak, baiño ez makal, ezerez zârkonduak, ez, indartsu ta zoliak baiño. Gernikako zurgaitza dezute zuen ezaungari donea (santua) ta ura berbera dirudizute zuek ere: arek urtero abar ta osto befi ezeak sortzen dituen antzera, zuek ere, zârtu ordez, gero baiño gero pizkoñago, zoliago egiten zerate, ta egun argitsu baten goizargia bezela agurkatzen zaituztet.*» Badira beren oitura, jafaimen eta izkuntza laister ayenatuko, ta berak ere biarguziz ondatuak izango dirala dioten euskaldunak. Xujartek ez derizkio ala.

Siniste irme, sendo ta bikaina zuen euskaldunetan eta oek uste ori galtzen ez uztea, uste ori

egiazko ta legezkoa dala erakustea, beren egiteko gorena izango dute. Dana dala, euskaldunak, jakintsu andi ta aomen aundikoa zan ori, beti gogoratuko dute, ta oren ezaungaritzat, Euskaltzaindiak bere gela nagusian aren irudia jafi du leku agerian, orok safi (maiz) begien aurrean izan dezaten.

Gerhard Bähr Studinassessor

Hildesheim, 1928-XII-29'an.